



Lehendakaria/Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea/Vocal

M^a Aranzazu Arana Learte

Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

Resolución 8/2021 ebazpena

Recurso 1/2021 errekurtsua

AGISAS GIPUZKOAKO GIZARTE
INTEGRATZAILEEN ETA ANIMATZAILE
SOZIOKULTURALEN ELKARTEAK
kontratazio arloko errekurtsu berezia ezarri du
honako kontratu honen pleguen aurka:
Gipuzkoako Lurralde Historikoko eta/edo
Gipuzkoako mugakide diren eremu
euskaldunetako gazte aterpetxetan edo
instalazioetan UDALEKUAK 2021 udako
kanpainaren barruan hiru haur-udaleku
antolatze eta garatzeko kontratua. Horren
inguruan, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako
Foru Auzitegi Administratiboa, gaur egindako
bileran, goian aipatzen diren kideak bertaratu
direlarik, erabaki hau hartu du aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación
interpuesto por la ASOCIACIÓN
GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES
SOCIALES Y ANIMADORES
SOCIOCULTURALES (AGISAS) contra los
pliegos del contrato de organización y desarrollo
de tres colonias infantiles, dentro de la campaña
de verano UDALEKUAK 2021, en diferentes
albergues o instalaciones juveniles del Territorio
Histórico de Gipuzkoa y/o de zonas vascófonas
limítrofes con Gipuzkoa, el Tribunal
Administrativo Foral de Recursos Contractuales,
en sesión celebrada en el día de la fecha, con la
asistencia de los miembros que arriba se expresan,
ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENA.- 2021eko otsailaren 16an Auzitegi
honen erregistroan aurkeztutako idatziaren bidez,
AGISASek kontratazio arloko errekurtsu berezia
aurkeztu zuen ebazpen honen sarreran aipatzen
den kontratua arautzen duten baldintza agirien
aurka.

BIGARRENA.- Otsailaren 17an, Auzitegiak
Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kiroletako
Departamentura bidali zuen errekurtsua, eta
9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore
Publikoko Kontratuenak, 56.2 artikuluan
xadatutakoari jarraikiz, kontratazio espedientea eta
dagokion txostena eskatu zituen.

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el
registro electrónico de este Tribunal el día 16 de
febrero de 2021, AGISAS interpuso recurso
especial en materia de contratación contra los
pliegos que rigen el contrato citado en el
encabezamiento de esta resolución.

SEGUNDO.- El 17 de febrero el Tribunal remitió
el recurso al Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes y le solicitó, de
conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2
de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos
del Sector Público (LCSP), el expediente de
contratación y el correspondiente informe.



HIRUGARRENA.- Martxoaren 25ean, kontratazio espedientea eta departamentuaren txostena sartu ziren Auzitegiaren erregistroan. Bertan proposatzen da errekurtsoa ezestea.

LAUGARRENA.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 56.3 artikulua betetzeko, martxoaren 26an errekurtsoaren berri eman zitzaizen proposamen bat aurkeztutako bost entitateei, alegazioak egin zitzaizen bost laneguneko epean. Epe hori igarota, inork ez du alegaziorik aurkeztu.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Errekurtsoaren onargarritasuna

LEHENENA.- Errekurtso berezi hau aurkeztzen da Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 44.1.a) artikuluan aurreikusitako zerbitzu kontratu baten baldintza agirien aurka. Kontratu horren balio zenbatetsia 122.400 eurokoa da.

Beraz, kontratazio alorreko errekurtso berezia jar daiteke errekurritutako egintzaren aurka, hala xedatzen baita Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 44.2.a) artikuluan eta Auzitegi honi dagokio errekurtsoaren berri izateko eskumena, hain zuzen ere Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuko 2.1 artikulua emandakoa.

BIGARRENA.- Errekurtsogilea errekurtsoa jartzeko legitimatuta dago, hala xedatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 48. artikuluan, eta 814/2015 Errege Dekretuak, irailaren 11koak, kontratuen alorreko erabakiak berrikusteko prozedura berezien Erregelamendua onartzekoak, 24.1 artikuluan, aurkaratzen duen agirien kontratuaren xedarekin zerikusia duten interesak ordezkatzeko dituen elkarteak delako, eta bertako kideen interes kolektiboak defendatzeko dituelako.

TERCERO.- El 25 de marzo tuvieron entrada en el registro del Tribunal el expediente de contratación y el informe del departamento, en el que se propone la desestimación del recurso.

CUARTO.- En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP, el 26 de marzo se dio traslado del recurso a las cinco entidades que presentaron proposición para que pudieran formular alegaciones en el plazo de cinco días hábiles, transcurrido el cual no se ha presentado ninguna.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Admisibilidad del recurso

PRIMERO.- El presente recurso especial se interpone contra los pliegos de un contrato de servicios de los contemplados en el artículo 44.1.a) LCSP, cuyo valor estimado asciende a 122.400 euros.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponer el artículo 44.2.a) LCSP, y la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

SEGUNDO.- La recurrente está legitimada para interponer el recurso, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP y en el artículo 24.1 del Reglamento de los procedimientos especiales de revisión de decisiones en materia contractual, aprobado por Real Decreto 814/2015, de 11 de septiembre, puesto que se trata de una asociación representativa de intereses relacionados con el objeto del contrato cuyos pliegos impugna, y actúa en defensa de los intereses colectivos de sus asociados.



HIRUGARRENA.- Errekurtsoa hamabost laneguneko epean aurkeztu da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 50.1.b) artikulua aurreikusten duen bezala, kontuan hartzen bada lizitazio iragarkia eta pleguak 2021eko urtarrilaren 27an argitaratu zirela Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman dagoen Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratatzailearen profilean.

Auziaren mamia

LAUGARRENA.- 2021eko urtarrilaren 25eko Foru Aginduaren bidez, Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatu titularrak onartu egin zuen Gipuzkoako Lurralde Historikoko eta/edo Gipuzkoarekin mugakide diren eremu euskaldunetako gazte aterpetxeetan edo instalazioetan UDALEKUAK 2021 udako kanpainaren barruan hiru haur-udaleku antolatzeko eta garatzeko zerbitzuak kontratatzeko espedientea.

AGISASek administrazio klausula partikularren agiriaren (AKPA) ezaugarri koadroko 15. atala aurkaratu du, baliabide pertsonalak nahitaez adskribatzeko konpromisoari dagokionez, bai eta preskripzio teknikoen agiriko (PTA) 2.3 atala ere, zerbitzua emateko behar diren langileei eska dakizkiekeen titulazioei dagokienez.

AKPAren ezaugarrien taulako 15. atalak lizitatzailerei eskatzen die, beste eskakizun batzuk betetzeaz gain, ondoren aipatzen den titulazioa betetzen duten giza baliabide jakin batzuk atxikitzea kontratuari:

- Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza jardueren zuzendari titulua duen zuzendari bat, edo baliokidea den titulazio bat edo Eusko Jaurlaritzak homologatutako bat edo, modu subsidiarioan, gizarte hezkuntzako Gradu titulua edo beste edozein titulu baliokide.

TERCERO.- El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.b) LCSP, si se tiene en cuenta que el anuncio de licitación y los pliegos se publicaron en el perfil de contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa, alojado en la Plataforma Contratación Pública en Euskadi, el día 27 de enero de 2021.

Fondo del asunto

CUARTO.- Mediante Orden Foral de 25 de enero de 2021 el Diputado Foral titular del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes aprobó el expediente de contratación de los servicios de organización y desarrollo de tres colonias infantiles, dentro de la campaña de verano UDALEKUAK 2021, en diferentes albergues o instalaciones juveniles del Territorio Histórico de Gipuzkoa y/o de zonas vascófonas limítrofes con Gipuzkoa.

AGISAS impugna el apartado 15 del cuadro de características del pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP), en lo relativo al compromiso de adscripción obligatoria de medios personales, así como el apartado 2.3 del pliego de prescripciones técnicas (PPT), en lo relativo a las titulaciones exigibles al personal necesario para prestar el servicio.

El apartado 15 del cuadro de características del PCAP exige a los licitadores el compromiso de adscribir al contrato determinados medios personales que cumplan, además de otros requisitos, el de titulación que a continuación se menciona:

-Un director/a con el título de director/a de actividades educativas en el tiempo libre infantil y juvenil, o titulación equivalente u homologada por el Gobierno Vasco, o subsidiariamente, título de Grado o equivalente de la rama socioeducativa.



- Hamar parte-hartzaileko begirale bat, haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza jardueretako begirale titulua duena, edo titulazio baliokidea edo Eusko Jaurlaritzak homologatutakoa, edo, modu subsidiarioan, gizarte hezkuntzako gradu titulua edo beste edozein titulu baliokide.

Titulazio baldintza horiek PTAre 2.3 atalean errepikatzen dira.

Errekurtsogileak nahi du pleguen atal horiek baliogabetzat jo daitezela eta lizitazio berri bat agindu dadila; haur eta gazteen aisialdiko begirale eta haur eta gazteen aisialdiko zuzendari lanpostuetarako, eskatu dadila Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko urriaren 27ko Aginduan (2016ko azaroaren 17ko EHAA argitaratua) ezarritako lanbide kualifikazioak egiaztatzea; eta uste bada badagoela "*beste edozein titulu baliokide*" edo "*homologatu*" aisialdiko begirale eta zuzendari lanpostuak betetzeko, identifikatu daitezela titulu horiek eta arrazoitu dadila haiek zergatik hartzen diren aintzat.

BOSGARRENA.- Aurkaratutako ataletan eskatzen diren tituluak hemen aurreikusten direnak dira: 419/1994 Dekretua, azaroaren 2koa, batetik, Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta, bestetik, Haur eta Gazteen Aisialdi Ihardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duena (1994ko azaroaren 16ko EHAA).

Diploma ofizialak dira, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak ematen dizkie dekretu horren arabera ofizialki onartuta dauden haur eta gazteen aisialdiko hezitzaileen eskoletan dagozkion ikastaroak gainditu dituzten ikasleei.

-Un monitor/a por cada diez participantes con el título de monitor/a de actividades educativas en el tiempo libre infantil y juvenil, o titulación equivalente u homologada por el Gobierno Vasco, o subsidiariamente, título de Grado o equivalente de la rama socioeducativa.

Estos requisitos de titulación se reproducen en el apartado 2.3 del PPT.

La recurrente pretende que los citados apartados de los pliegos se declaren nulos y se ordene una nueva licitación; que para los puestos de trabajo de monitor/a de tiempo libre infantil y juvenil y de director/a de tiempo libre infantil y juvenil se exija la acreditación de las cualificaciones profesionales establecidas en la Orden de 27 de octubre de 2016, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, publicada en el BOPV de 17 de noviembre de 2016; y en el supuesto de que se considere la existencia de "*cualquier otro título equivalente*" u "*homologado*" para desempeñar los puestos de trabajo de monitor/a de tiempo libre y director/a de tiempo libre, se identifiquen tales títulos y se motive su inclusión.

QUINTO.- Los títulos exigidos en los apartados impugnados son los previstos en el Decreto 419/1994, de 2 de noviembre, por el que se regula el reconocimiento oficial de Escuelas de Formación de Educadores/as en el Tiempo Libre Infantil y Juvenil y de los Cursos de Formación de Monitores/as y Directores/as de Actividades Educativas en el Tiempo Libre Infantil y Juvenil, así como el acceso a los mismos (BOPV de 16 de noviembre de 1994).

Se trata de unos diplomas oficiales expedidos por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco a aquellos alumnos que hayan superado los correspondientes cursos en las escuelas de educadores/as en el tiempo libre infantil y juvenil oficialmente reconocidas conforme a lo dispuesto en dicho decreto.



9.1 artikulua arabera, begiraleak prestatzeko ikastaroetan parte hartzeko, 18 urtetik gora izan beharko dute edo 18 urte bete beharko dituzte matrikulazio urtearen barruan eta, betiere, praktikak egin aurretik izan beharko dute aipatutako adin hori.

Zuzendarien prestakuntza ikastaroetara sartzeko, baldintza hauek bete behar dira: 21 urtetik gora izatea, edo matrikulazio urte barruan adin hori izatea; ikastaro hasieran, begirale diploma ofizialaren jabe izatea; eta Bigarren Hezkuntza gaindituta izatea edo, kanpotik etorri gero, jatorrizko estatuko hezkuntza sisteman horren pareko dena (9.2 artikulua).

Dekretuaren I. eranskinak kasu kasuko ikastaroen helburuak eta prestakuntza moduluak arautzen ditu, eta II. eranskinak bi kategorietarako xedapen komunak ditu prestakuntza teoriko-praktikoaren etapari, nahitaezko praktikak egiteari eta ikastaroen ebaluazioari buruz.

I. eta II. eranskinak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko urriaren 27ko Aginduaren bidez eguneratu ziren. Agindu horren hitzaurrean azaltzen denez, Gazteriaren Lurralde arteko Kontseiluaren 2012ko ekainaren 21eko erabakiaren bidez, onartu zen autonomia erkidegoetako gazteria erakundeek egokitu zitezela aisialdiko prestakuntza arautzen zuten araudiak lanbide kualifikazioak argitaratu ondoren sortutako egoera berrira. Zehazki, begirale eta zuzendari ikastaroak egokitu zitezela profesionaltasun ziurtagiri hauen edukira: SSCB0209_2, Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza aisialdiko jardueren dinamizazioa (urriaren 31ko 1537/2011 Errege Dekretuak ezarritakoa); eta SSCB0211_3, Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza aisialdiko jardueren zuzendaritza eta koordinazioa (azaroaren 18ko 1697/2011 Errege Dekretuak ezarritakoa). Horrela, prestakuntza edukiak berdin-berdinak izango ziren dagokion autonomia erkidegoko gazteria erakundeak ofizialki aitortutako eskola

De acuerdo con su artículo 9.1, el acceso a los cursos de formación de monitores/as está abierto a cualquier persona que tenga 18 años o los cumpla en el año de matriculación del curso y, en todo caso, antes de la realización de las prácticas.

El acceso a los cursos de formación de directores/as requiere tener 21 años o cumplirlos en el año de matriculación, estar en posesión del diploma oficial de monitor/a al inicio del curso y tener superada la etapa de Educación Secundaria o su equivalente en el sistema educativo del país de procedencia (artículo 9.2).

El anexo I del decreto regula los objetivos y los módulos formativos de los respectivos cursos, y el anexo II contiene disposiciones comunes a ambas categorías sobre la etapa de formación teórico-práctica, la realización de prácticas obligatorias y la evaluación de los cursos.

Los anexos I y II fueron objeto de actualización mediante una Orden de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura de 27 de octubre de 2016, en cuyo preámbulo se explica que mediante acuerdo del Consejo Interterritorial de Juventud de 21 de junio de 2012 se aprobó que los organismos de juventud de las comunidades autónomas adecuasen sus respectivas normativas reguladoras de formación de tiempo libre a la nueva situación creada tras la publicación de las cualificaciones profesionales de juventud. Se trataba, en concreto, de que los cursos de monitor/a y de director/a se ajustaran al contenido de los certificados de profesionalidad SSCB0209_2 Dinamización de actividades de tiempo libre educativo infantil y juvenil (establecido por Real Decreto 1537/2011, de 31 de octubre) y SSCB0211_3 Dirección y coordinación de actividades de tiempo libre educativo infantil y juvenil (establecido por Real Decreto 1697/2011, de 18 de noviembre). De esa forma, los contenidos formativos pasaban a ser exactamente los mismos



guztietarako.

SEIGARRENA.- Errekurtsogileak kontraesan bat du; izan ere, aurkaratutako atalak baliogabetzat jo nahi ditu eta, jarraian, 2016ko urriaren 27ko Aginduan ezarritako lanbide kualifikazioak eskatu nahi ditu begirale eta zuzendari lanpostuetarako; izan ere, ikusi berri dugun bezala, azken hori da, hain zuzen ere, pleguek egiten dutena.

Bestalde, kexu da pleguetan ez delako zehazten zein diren aurkaratutako ataletan aipatzen diren titulu baliokideak edo homologatuak.

Aginduaren hirugarren xedapen iragankorraren arabera, Eusko Jaurlaritzako Gazteriaren erakundeak Agindua indarrean jarri aurretik emandako haur eta gazteen aisialdirako hezkuntza jardueren begirale eta zuzendariaren diplomek Aginduaren arabera emandakoen ondorio eta balio bera izango dute haurren eta gazteen aisialdian jarduteko administrazio gaikuntzari begira. Eta azken xedapenetan lehenak ezarri duenez, edozein autonomia erkidegotako gazteria erakundeak emandako haur eta gazteen aisialdiko begirale eta zuzendarien titulu edo diploma ofizialek, izena edozein dutela ere, automatikoki dute gaikuntza administratiboa Euskal Autonomia Erkidegoan haur eta gazteen esparruan jarduteko.

Errekurtsogileak hitz egiten badu eskatzen diren diplomak lanbide heziketako titulu jakin batzuekin eta/edo dagozkion lanbide kualifikazioak egiaztatzen dituzten profesionaltasun ziurtagiriekin parekatzeko edo homologatzeko aukerari buruz, pleguek ez dute arau hausterik egiten Eusko Jaurlaritzak homologatutako edo

para todas las escuelas reconocidas oficialmente por el organismo de Juventud de la correspondiente comunidad autónoma.

SEXTO.- La recurrente incurre en una contradicción al pretender que se declaren nulos los apartados impugnados y pedir a renglón seguido que para los puestos de monitor/a y de director/a se exijan las cualificaciones profesionales establecidas en la Orden de 27 de octubre de 2016, ya que, como acabamos de ver, esto último es precisamente lo que hacen los pliegos.

Por otra parte, se queja de que los pliegos no concretan cuáles son los títulos equivalentes u homologados a los que se refieren los apartados impugnados.

Según la disposición transitoria tercera de la propia Orden, los diplomas de monitor/a y de director/a de actividades educativas en el tiempo libre infantil y juvenil expedidos por el organismo de Juventud del Gobierno Vasco con anterioridad a su entrada en vigor tendrán el mismo efecto y validez que los que se expidan en virtud de ella, de cara a su habilitación administrativa para ejercer en el ámbito de la educación en tiempo libre infantil y juvenil. Y la disposición final primera establece que los títulos o diplomas oficiales de monitor/a y de director/a de tiempo libre infantil y juvenil, sea cual sea su denominación, expedidos por el organismo de Juventud de cualquier comunidad autónoma tienen automáticamente la habilitación administrativa para ejercer en el ámbito de infancia y juventud dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Si la recurrente se refiere a posibles equivalencias u homologaciones de los diplomas exigidos con determinados títulos de formación profesional y/o con certificados de profesionalidad acreditativos de las correspondientes cualificaciones profesionales, los pliegos no incurren en ninguna infracción al indicar que se admitirán los títulos



baliokideak diren tituluak onartuko direla adierazten duenean.

Horri dagokionez, departamentuaren txostenak adierazten du ezin direla ezagutu lanbide kualifikazio guztiak, ez eta lanbide heziketako tituluaren prestakuntza eduki guztiak ere. Beraz, titulazio jakin batzuk aipatzeko eta beste batzuk alde batera uzteko arriskua saihesteko, formula generikoa aukeratu da: *"Edo Eusko Jaurlaritzak homologatutako beste edozein titulu baliokide"*. Kontratuaren esleipendunari dagokio, hala badagokio, lanbide heziketako titulu jakin baten edo profesionaltasun ziurtagiri baten eta pleguetan eskatutako diplomen arteko baliokidetasuna edo homologazioa egiaztatzea.

ZAZPIGARRENA.- Azkenik, bai zuzendari lanposturako, bai begirale lanposturako, pleguek modu subsidiarioan onartzen dute gizarte hezkuntzako gradu titulua edo beste edozein titulu baliokide.

Aurreikuspen hori zentzugabea eta neurritz kanpoko da, kontuan hartzen badugu begirale ikastaroetan sartzeko ez dela beharrezkoa irakaskuntzako titulu ofizialik izatea, eta zuzendari ikastaroetan sartzeko nahikoa dela jatorrizko herrialdeko hezkuntza sisteman Bigarren Hezkuntza edo horren baliokidea gainditu izana. Haur eta gazteen aisialdian hezkuntza jardueren zuzendari edo begirale izateko berariazko diplomarik edo titulu baliokiderik edo homologaturik ez izatea ezin da ordeztu unibertsitateko Graduoko titulu baten eskakizunarekin.

Aurreikuspen horrek ez die eragiten lizitazioan parte hartzeko baldintzei, ez eta esleipen irizpideen balorazioari ere, baizik eta esleipendunak kontratuari atxiki beharko dizkion giza baliabideei soilik.

equivalentes u homologados por el Gobierno Vasco.

A este respecto el informe del departamento señala que no resulta posible conocer todas las cualificaciones profesionales, ni la totalidad de los contenidos formativos de los distintos títulos de la formación profesional, por lo que, a fin de evitar el riesgo de citar unas determinadas titulaciones y obviar otras, se ha optado por la fórmula genérica *"o cualquier otro título equivalente u homologado por el Gobierno Vasco"*. Es al adjudicatario del contrato a quien correspondería, llegado el caso, acreditar la equivalencia u homologación de un determinado título de formación profesional o de un certificado de profesionalidad con los diplomas exigidos en los pliegos.

SÉPTIMO.- Por último, tanto para el puesto de director/a como para el de monitor/a los pliegos admiten subsidiariamente el título de Grado o equivalente de la rama socioeducativa.

Semejante previsión es irrazonable y desproporcionada, si tenemos en cuenta que el acceso a los cursos de monitor/a no exige estar en posesión de ningún título oficial de enseñanza y que para acceder a los de director/a es suficiente haber superado la Educación Secundaria o su equivalente en el sistema educativo del país de procedencia. La falta del diploma específico para ejercer las funciones de director/a o de monitor/a de actividades educativas en el tiempo libre infantil y juvenil, o de un título equivalente u homologado, no puede ser suplida con la exigencia nada menos que de un título universitario de Grado.

Esta previsión no afecta a los requisitos para tomar parte en la licitación, ni a la valoración de los criterios de adjudicación, sino solo a los medios personales que el adjudicatario deberá adscribir al contrato.



Izan ere, AKPAren ezaugarri koadroaren 21. apartatuak ezartzen duenez, kontratua ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar lezakeen funtsezko betebeharren artean (SPKLren 76.2 eta 211. artikuluen arabera), ekipoetako langile guztiek izan beharko dituzte kontratuaren xedea betetzeko behar diren gaikuntza tituluak, bai eta 26/2015 Legean araututako erregistroan inskribatuta ez egotearen ziurtagiriak ere. Eta ezaugarrien koadroko 28. atalak xedatzen du dagokion txanda hasi baino hamabost egun lehenago esleipendunak zerrenda bat aurkeztu beharko duela lote bakoitzean parte hartzen duten langileekin, dagokion curriculumarekin eta 26/2015 Legean araututako Erregistroan inskribatuta ez egotearen adierazpenarekin batera.

Beraz, pleguen aurreikuspen horren deuseztasunak ez du zertan berekin ekarri esleipen prozedura osoarena.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa

ERABAKITZEN DU

Zati batean baiestea AGISAS GIPUZKOAKO GIZARTE INTEGRATZAILEEN ETA ANIMATZAILE SOZIOKULTURALEN ELKARTEAK honako kontratu honen pleguen aurka ezarritako kontratazio arloko errekurtso berezia: Gipuzkoako Lurralde Historikoko eta/edo Gipuzkoako mugakide diren eremu euskaldunetako gazte aterpetxetan edo instalazioetan UDALEKUAK 2021 udako kanpainaren barruan hiru haur-udaleku antolatze eta garatzeko kontratua. Eta deuseztatzea "*edo, modu subsidiarioan, gizarte hezkuntzako gradu titulua edo beste edozein titulu baliokide*" hitz tartea, administrazio klausula partikularren agiriaren 15. atalean eta preskripzio teknikoaren agiriaren 2.3. atalean agertzen dena.

En efecto, el apartado 21 del cuadro de características del PCAP establece, entre las obligaciones esenciales del contrato cuyo incumplimiento podrá motivar la resolución del mismo de conformidad con los artículos 76.2 y 211 LCSP, que la totalidad del personal integrante de los equipos deberá disponer de las titulaciones habilitantes necesarias para cumplir el objeto del contrato y de los certificados de no estar inscritos en el Registro regulado en la Ley 26/2015. Y el apartado 28 del cuadro de características dispone que quince días antes de que comience el turno correspondiente la adjudicataria deberá aportar una relación con el personal participante en cada uno de los lotes, junto con el correspondiente currículum y la declaración de no estar inscrito en el Registro regulado en la Ley 26/2015.

Por consiguiente, la nulidad de esta previsión de los pliegos no tiene por qué llevar aparejada la del procedimiento de adjudicación en su totalidad.

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

ACUERDA

Estimar en parte el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS) contra los pliegos del contrato de organización y desarrollo de tres colonias infantiles, dentro de la campaña de verano UDALEKUAK 2021, en diferentes albergues o instalaciones juveniles del Territorio Histórico de Gipuzkoa y/o de zonas vascófonas limítrofes con Gipuzkoa, y anular los incisos "*o, subsidiariamente, título de Grado o equivalente de la rama socioeducativa*" contenidos en el apartado 15 del cuadro de características del pliego de cláusulas administrativas particulares y en el apartado 2.3 del pliego de prescripciones técnicas del contrato.



Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2021eko maiatzaren 11a / San Sebastián, 11 de mayo de 2021.